

Bilbao-Bizkaia Nazioarteko Kantu Lehiaketa
Pedro Mª Unanue
Concurso Internacional de Canto de Bilbao-Bizkaia

# GALA LIRIKOA

2013 /11 /19
TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA
20:00




BILBAO-BIZKAIA NAZIOARTEKO KANTU LEHIAKETAK AURKEZTEN DU:

**XIV. EDIZIOAREN IRABAZLEEN GALA LIRIKOA**

CONCURSO INTERNACIONAL DE CANTO BILBAO-BIZKAIA PRESENTA:

**GALA DE GANADORAS Y GANADORES DE LA XIV EDICIÓN**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

# GALA
# LIRIKOA

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**
**KULTURA SAILA**
**KULTUR EKINTZA ZERBITZUA**
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
DEPARTAMENTO FORAL DE CULTURA
SERVICIO ACCIÓN CULTURAL
Alameda de Rekalde 30
48009 BILBAO
**concursocantobilbao@bizkaia.net**
**www.bizkaia.net/concursocantobilbao**

# BILBAO-BIZKAIA NAZIOARTEKO KANTU LEHIAKETA

# CONCURSO INTERNACIONAL DE CANTO BILBAO-BIZKAIA

## PEDRO M. UNANUE

Bilboko Nazioarteko Kantu Txapelketa 1984. urtean hasi zen eta, hurrengo urtean, UNESCOren mendean dagoen Musika Txapelketen Munduko Federazioak onartu zuen. Ordutik hona, sortu zenean bere fundazio-estatututuetan ezarri zituen eginkizunak garatzen aritu da entitatea. Hain zuzen, entitatearen eginkizun nagusia izan da txapelketa egiten den urteetan hura kudeatzea —bi urterik behin egiten baita—, eta, egiten ez den urteetan, kantaldi lirikoak antolatzen ditu, non aurreko urtean saritutako taldeetako batzuk parte hartzera gonbidatzen dituen.

2012. urtean, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Foru Sailaren kudeaketaren pean, txapelketak beste izen bat hartu zuen, hain zuzen, “PEDRO Mª UNANUE” BILBO-BIZKAIA NAZIOARTEKO KANTU LEHIAKETA, tenor ondarrutarraren omenez. Urte horretako edizioa XIV.a izan zen.

Aurten ere, orain arte egin diren kantaldi lirikoak kudeatu behar dira;

El Concurso Internacional de Canto de Bilbao desde su inicio en el año 1984 y su aceptación al año siguiente por la Federación Mundial de Concursos Musicales, organismo dependiente de la UNESCO, ha venido desarrollando las acciones propias por las cuales se creó y que quedaban reflejadas en sus estatutos fundacionales. Es decir, como función principal gestionar la edición del Concurso Internacional en los años en que este se realizaba, dado su carácter bienal y en los años en que no se desarrolla la competencia se realizaban Galas Líricas en las que se invitaba a participar a algunos de los galardonados en la edición del año anterior.

En el año 2012, bajo la gestión en exclusiva del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, éste adoptó una nueva denominación pasando a ser el CONCURSO INTERNACIONAL DE CANTO DE BILBAO-BIZKAIA “PEDRO Mª UNANUE”, en reconocimiento al gran tenor ondarrrés, y se celebró la XIVª edición del mismo.

haien formatua, baina, aldatu egin da, batetik, 2012ko XIV. edizioan saritutakoei laguntzeko eta, bestetik, Sarean dauden Bizkaiko udal antzokietako musika-programazioa sendotzeko. Hori dela eta, hemendik aurrera, saritutako guztiak gonbidatuko ditugu Bilbon egiten den kantaldira; halaber, saridunek gonbita jasoko dute duettoetan parte-hartzeko Balmasedan zein Arrigorrian egingo diren kantaldietan.

Bilboko kantaldi lirikoan, 2012. urteko edizioan saria jaso zutenek parte hartuko dute, hain zuzen: SUN-HYUNG CHOk (sopranoa, emakumezko-ahotsen lehen saria), SEUNG-GI JUNGek (baritonoa – gizonezko-ahotsen lehen saria), MIREN URBIETA (sopranoa – emakumezko-ahotsen bigarren saria eta euskal parte-hartzaile onenaren saria), IWONA SOBOTKAI (emakumezko-ahotsen hirugarren saria ) eta KAROLY SZEMEREDYk (baritonoa – gizonezko-ahotsen hirugarren saria). Sergio Escobar, gizonezko-ahotsen bigarren saria jaso duena, parte hartu nahi bazuen ere, ezingo da egon gure artean, opera-konpromisoak dituelako Napolesen.

En este año 2013 corresponde gestionar la Gala o Galas Líricas que se venían desarrollando, si bien el formato de las mismas ha cambiado tratando de favorecer y apoyar a los galardonados en la XIVª edición correspondiente al año 2012, así como fortaleciendo la programación musical de los teatros municipales vizcaínos integrados en la Red Sarea, motivo por el que en las Galas Líricas actuales se invita a tomar parte a la totalidad de galardonados en la que se realiza en Bilbao y también en "duettos" participan éstos en las que se desarrollarán en Balmaseda y Arrigorriaga.

En la Gala Lírica de Bilbao tomarán parte los galardonados en la edición del año 2012: SUN-HYUNG CHO (soprano - 1er. premio voces femeninas), SEUNG-GI JUNG (barítono - 1er. premio voces masculinas), MIREN URBIETA (soprano - 2º premio voces femeninas), IWONA SOBOTKA (soprano - 3er. premio voces femeninas) y KAROLY SZEMEREDY (bajo-barítono - 3er. premio voces masculinas). El galardonado con el segundo premio en voces masculinas, el tenor Sergio Escobar, no está presente ya que le ha sido imposible asistir, a pesar de su deseo, pero sus

Arrigorriagan eta Balmasedan egingo diren kantaldi lirikoetan, MIREN URBIETA sopranoak eta KAROLY SZEMEREDY baritonoak opera-ariak eta zartzuelak eskainiko dituzte.

Amaitzeko, KANTALDI LIRIKO hauetako parte-hartzaileei opa nahi diet aparteko ibilbide profesional arrakastatsu bat izan dezaten, eta publikoari, kantaldiez gozatu dezan.

compromisos operísticos en Nápoles le impiden presentarse ante Vds.

En las GALAS LÍRICAS que se realizarán en Arrigorriaga y Balmaseda ofrecerán arias de ópera y zarzuelas la soprano MIREN URBIETA y el barítono KAROLY SZEMEREDY.

Les deseo a todos los/las participantes en estas GALA LÍRICAS una extraordinaria carrera profesional llenas de éxitos, a la vez que espero disfruten de éstas los asistentes.

**Miren Josune Ariztondo Akarregi**
Kulturako Foru Diputatua
Diputada Foral de Cultura















# EPAIMAHAIA
## Jurado

Presidentea // Presidenta **María Bayo**

Kideak // Vocales **Marc Mazy**

Musika-aditua

**Jon Paul Laka**

OLBEren zuzendari artistikoa

**Emilio Sagi**

Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoa

**Fabrice Boulanger**

Piano-jotzailea, Lyongo Goi-mailako Kontserbatorioa

**Luigi Alva**

Milango Scala Antzokiaren Kantu Lirikoaren Hobekuntzaren Akademiaren irakaslea eta kantaria

**Isabelle Germain**

Kantu-irakaslea, Lyongo Goi-mailako Kontserbatorioa

**Paulo Esper**

Sao Pauloko Operaren zuzendaria

Idazkaria // Secretaria **Olatz Saitua**



# LEHEN ZATIA
## Primera parte

**IWONA SOBOTKA (Soprano) y KAROLY SZEMEREDY (Bajo-barítono)**

Madamigella Valery?
"La Traviata" Giuseppe Verdi (1813-1901)

---

**SUN HYUNG CHO (Soprano)**

L'altra notte in fondo al mare
"Mefistofele" Arrigo Boito (1842-1918)

---

**SEUNG GI JUGN (Barítono)**

O du mein holder Abendstern
"Tannhäuser" Richard Wagner (1813-1883)

---

**MIREN URBIETA (Soprano)**

Donna Elvira, In quali eccessi... Mi tradi
"Don Giovanni" Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791)

---

**KAROLY SZEMEREDY (Bajo-barítono)**

Gerard, Nemico della patria
"Andrea Chenier" Umberto Giordano (1867-1948)

---

**IWONA SOBOTKA (Soprano)**

Aria de Desdemona, Piangea cantando
"Otello" Giuseppe Verdi

---

**SUN HYUNG CHO (Soprano) y SEUNG GI JUGN (Barítono)**

Udiste?
"Il Trovatore" Giuseppe Verdi

# BIGARREN ZATIA
## Segunda parte

**MIREN URBIETA (Soprano)**

Micaela, c´est des contrebandiers
"Carmen" Georges Bizet (1838-1875)

---

**SEUNG GI JUGN (Barítono)**

Per me giunto... O Carlo ascolta
"Don Carlo" Giuseppe Verdi

---

**SUN HYUNG CHO (Soprano)**

Stridono lassu
"I Pagliacci" Ruggero Leoncavallo (1857-1919)

---

**KAROLY SZEMEREDY (Bajo-barítono)**

Luché la fe por el triunfo
"Luisa Fernanda" Federico Moreno Torroba (1891-1982)

---

**IWONA SOBOTKA (Soprano)**

Tres horas antes del día
"La Marchenera" Federico Moreno Torroba

---

**MIREN URBIETA (Soprano) y KAROLY SZEMEREDY (Bajo-barítono)**

En mi tierra extremeña
"Luisa Fernanda" Federico Moreno Torroba

# SUN HYUNG CHO

## EMAKUME AHOTSA LEHEN SARIA / PRIMER PREMIO FEMENINO

Paju, South Korea // 1981 // Soprano



Seul, Milan eta Frankfurteko eskoletan trebatutako sopranoa.

Bere karreran hainbat aintzatespen eta sari jaso du; besteak beste honako hauek: 2. saria Sarzana-ko “Premio Spiros Agris” Nazioarteko Lehiaketan (2013), 2. saria Erromako “Ottavio Ziino” Nazioarteko Lehiaketan (2012), 3. saria Sulmona-ko “Maria Caniglia” Nazioarteko Lehiaketan (2012), Frankfurteko Transition Classic Exzellenzpreis (2012), 3. saria Paviako “Gaetano Fraschini” Nazioarteko Lehiaketan (2011), Bayreuth-eko Jaialdiaren Beka (2011) edo Koreako Musika Elkartearen “Best Newcomer” saria (2010).

Kontzertuak eman ditu mundu osoan zehar eta hainbat paper egin du operetan, adibidez Pucciniren La Bohèmen.

Soprano formada en escuelas de Seúl, Milán y Frankfurt.

A lo largo de su carrera ha ganado distintos premios y reconocimientos, como por ejemplo: 2º premio en el Concurso Internacional “Premio Spiros Agris” de Sarzana (2013), 2º premio en el Concurso Internacional “Ottavio Ziino” de Roma (2012), 3er premio en el Concurso Internacional “Maria Caniglia” de Sulmona (2012), el Transition Classic Exzellenzpreis de Frankfurt (2012), 3er premio en el Concurso Internacional “Gaetano Fraschini” de Pavia (2011), la Beca del Festival de Bayreuth (2011) o el Premio de la Asociación Musical de Korea “Best Newcomer” (2010).

Ha ofrecido conciertos por todo el mundo y ha representado diferentes papeles en óperas, como La Bohème de Puccini.

# SEUNG-GI JUNG

GIZON AHOTSA LEHEN SARIA / PRIMER PREMIO MASCULINO

South Korea // 1979 // Barítono



Baritono honek hainbat lehiaketa irabazi du, adibidez Ottavio Ziino Nazioarteko Kantu Lehiaketa Erroman (2006), Toulouseko 48. Nazioarteko Kantu Lehiaketa (2008), Bernako Ernst Haefliger Nazioarteko Kantu Lehiaketa (2008), Osloko Sonja Erregina Nazioarteko Lehiaketa (2009) eta Bilboko Nazioarteko Kantu Lehiaketa (2011). 2008an, 2. saria lortu zuen Modenako Luciano Pavarotti Nazioarteko Lehiaketan.

Korean, opera arloan debutatu zuen Figaro (Le nozze di Figaro) eta Germont (La Traviata) kantatuz.

2011/2012 denboraldian, Karlsruheko Badisches Staatstheater-en hastapenak egin zituen. Bertan egin zituen paperetako batzuk Rigoletto (Rigoletto), Germont (La Traviata), Escamillo (Carmen) edo Wolfram (Tannhäuser) izan ziren.

Este barítono ha ganado diferentes concursos, como el Concurso Internacional de Canto Ottavio Ziino en Roma 2006, el 48º Concurso Internacional de Canto de Toulouse 2008, Concurso Internacional de Canto Ernst Haefliger en Berna 2008, el concurso Internacional Reina Sonja en Oslo 2009 y el Concurso Internacional de Canto de Bilbao 2011. En 2008, obtuvo el 2º premio en el Concurso Internacional de Canto Luciano Pavarotti en Módena.

En Corea, Seung-Gi hizo su debut operístico cantando Figaro (Le nozze di Figaro) y Germont (La Traviata).

En 2011/2012, se inició en Badisches Staatstheater de Karlsruhe donde algunos de sus papeles fueron Rigoletto (Rigoletto), Germont (La Traviata), Escamillo (Carmen) o Wolfram (Tannhäuser).

# MIREN URBIETA

## EMAKUME AHOTSA BIGARREN SARIA / SEGUNDO PREMIO FEMENINO

Donostia // 1983 // Soprano



Musikene zentroan lizentziatutako sopranoa, kantu espezialitatean. Bere trebakuntza Palau de Les Arts-eko Placido Domingo Valentziako Hobekuntza Zentroan osatu zuen.

Hainbat sari lortu du kantu-lehiaketetan: hirugarren saria Colmenar Viejoko Kantu Lehiaketan, Madril (2013), bigarren saria Bilboko Nazioarteko Kantu Lehiaketan (2012), bigarren saria II. Ana María Iriarte Zarzuela Lehiaketan (2012), irabazle Logroñoko XXX. Nazioarteko Kantu Lehiaketan (2012), lehen saria Alcoyko Musikaren Lagunen Interpretazio Lehiaketan (2011) eta bigarren postua Irungo Luis Mariano Nazioarteko Kantu Lehiaketaren X. edizioan.

Luisa Fernanda izan da Torrobaren izenburu bereko Zarzuelan, Madrilgo Auditorio Nazionalean 2012. urtean.

Soprano licenciada en canto en Musikene. Completa su formación en el Centro de Perfeccionamiento Plácido Domingo del Palau de Les Arts de Valencia.

Ha obtenido diversos premios en concursos de canto: 3er premio en el Concurso de Canto de Colmenar Viejo, Madrid (2013), 2º premio en el Concurso Internacional de Canto de Bilbao (2012), 2º premio del II. Concurso de Zarzuela Ana María Iriarte (2012), ganadora del XXX Concurso Internacional de Canto de Logroño (2012), 1er premio en el Concurso de Interpretación de Amigos de la Música de Alcoy (2011) y 2º puesto de la Xª edición del concurso Internacional de Canto Luis Mariano de Irún (2009).

Ha sido Luisa Fernanda de la zarzuela de Torroba en el Auditorio Nacional de Madrid en 2012.

# IWONA SOBOTKA

## EMAKUME AHOTSA HIRUGARREN SARIA / TERCER PREMIO FEMENINO

Varsovia, Polonia // 1981 // Soprano



Nazioarteko arrakasta lortu zuen 2004an Belgikako Isabel Erregina Nazioarteko Musika Lehiaketaren Sari Nagusia irabaztean. Beste sari batzuk ere lortu ditu; lehenengo sariak Nueva Yorken, East & West Artists International Auditions-en, Varsoviako Poloniar Kantu Artistikoko Lehiaketan eta Bydgoszcz-eko Paderewski Lehiaketan.

2007an Parisen debutatu zuen Paul Dukasen “Ariane eta Bizarrurdin” operan, Ygrainen paperean. 2008an Parisera itzuli zen Mozarten “Die Zauberflöte” operako Lehen Dama gisa, eta Varsovian ere lehenengo aldiz agertu zen Moniuszko-ren “Verbum Nobile” operan, Zuzia-ren paperean.

Varsoviako Fryderyk Chopin Musika Unibertsitatean graduatu zen eta Madrilgo Sofia Erregina Goi Mailako Musika Eskolan jarraitu zuen.

Logró reconocimiento internacional al ganar el Gran Premio del Concurso Internacional de Música Reina Isabel de Bélgica en 2004. Otros galardones incluyen primeros premios en el East & West Artists International Auditions en Nueva York, el Concurso de Canción Artística Polaca de Varsovia y el Concurso Paderewski en Bydgoszcz.

En 2007 hizo su debut en la Ópera Nacional de París como Ygraine “Ariane y Barbazul” de Paul Dukas. En 2008 regresó a París como Primera Dama en “Die Zauberflöte” de Mozart y también hizo su primera aparición en Varsovia como Zuzia en “Verbum Nobile” de Moniuszko.

Se graduó de la Universidad Fryderyk Chopin de Música de Varsovia y continuó en la Escuela Superior de Música Reina Sofía de Madrid.

# SZEMEREDY KAROLY

GIZON AHOTSA HIRUGARREN SARIA / TERCER PREMIO MASCULINO

Budapest, Hungría // 1979 // Bajo-barítono



Hungariako Opera Nazionalean hasi zen ikasten, eta gerora Madrilgo Goi Mailako Kantu Eskolara joan zen ikastera.

2008. urtean, lehen saria irabazi zuen Madrilgo “Maestro Guerrero” Nazioarteko Kantu Lehiaketan eta urte hartan bertan, Quebecen, hirugarren sailkatu zen bere kategorian munduko lehiaketarik garrantzitsuenetako batean, The Operalian-en, alegia.

2007. urtean debutatu zuen, Boris Godunov operan Levitsky-ren papera egiten. Horren ostean hainbat paper egin ditu Pucciniren Tosca (Sciarrone) edo Sevillako Bizargina (Don Basilio) operetan, besteak beste.

Joan den urtean Escamilloren papera egin zuen Venezian eta Torinon. Halaber, Peruko Opera Jaialdian aritu zen, Guillermo Tell operako protagonista gisa.

Comenzó sus estudios en la Ópera Nacional de Hungría, y después se fue a aprender a la Escuela Superior de Canto de Madrid.

En 2008, ganó el 1er premio del Concurso Internacional de Canto ”Maestro Guerrero” de Madrid. En el mismo año en Quebec, se clasificó tercero en su categoría en una de las competiciones más importantes del mundo, the Operalian.

En 2007, hizo su debut interpretando a Levitsky en Boris Godunov, tras lo cual interpreta diferentes papeles en óperas como Tosca de Puccini (Sciarrone) o El barbero de Sevilla (Don Basilio).

El año pasado interpretó el papel de Escamillo tanto en Venecia como en Turín. Asimismo actuó en el Festival de Ópera de Perú, donde tuvo el papel protagonista de Guillermo Tell.

# ITZIAR BARREDO

## PIANO-JOTZAILEA / PIANISTA ACOMPAÑANTE

Bilbao



Ahots errepertorioan espezializatutako piano-jotzailea Maisu errepikatzailea eta Eszenatokiko Zuzendaria izan da OLBEn. Madrilgo Errege Antzokian, Bartzelonako Liceun eta Sevillako Maestranzan ere aritu da. Piano-jotzaile ofiziala izan da Musikari Gazteen Kantu Lehiaketa Nazionalean, Bilboko Nazioarteko Kantu Lehiaketan, Julian Gayarre Nazioarteko Lehiaketan eta hainbat master classetan.

Musikenen Kantu Saileko Zuzendari eta Errepertorio Irakasle izan da, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako hainbat ikastarotako Zuzendari eta Piano-jotzaile, eta Zumaiako Nazioarteko Musika Jaialdiaren Zuzendari Pedagogikoa. Gaur egun, Errepertorio Irakaslea da Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan eta Musikenen.

Pianista especializada en el repertorio vocal, ha sido Maestra repetidora y Directora de escenario en ABAO. También ha trabajado en el Teatro Real de Madrid, Liceu de Barcelona y Maestranza de Sevilla. Pianista oficial del Concurso Nacional de Canto de Juventudes Musicales, del Concurso Internacional de Canto de Bilbao, del Concurso Internacional Julián Gayarre y de diversas masterclases.

Ha sido Directora del Departamento de Canto y Profesora de Repertorio en Musikene, Directora y Pianista de diversos cursos organizados por la UPV/EHU y Directora Pedagógica del Festival Internacional de Música de Zumaia. En la actualidad, es Profesora de Repertorio en el Conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao y en Musikene.

Bilbao-Bizkaia
Nazioarteko Kantu Lehiaketa
Pedro Mª Unanue
Concurso Internacional
de Canto de Bilbao-Bizkaia

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



# 2014

XV.
BILBAO-BIZKAIA
NAZIOARTEKO
KANTU
LEHIAKETA

2014ko azaroaren 22tik 29ra

XV.
CONCURSO
INTERNACIONAL
DE CANTO
BILBAO-BIZKAIA

22-29 de noviembre de 2014

XV.
BILBAO-BIZKAIA
INTERNATIONAL
SINGING
COMPETITION

2014 november 22-29

XV.
CONCOURS
INTERNATIONAL
DE CHANT
BILBAO-BIZKAIA

22-29 novembre 2014

Conservatorio de Música
Juan Crisóstomo de Arriaga
Musika Kontserbatorioa

www.bizkaia.net/concursocantobilbao

FÉDÉRATION
MONDIALE DES CONCOURS
INTERNATIONAUX
DE MUSIQUE
WORLD FEDERATION OF
INTERNATIONAL
MUSIC COMPETITIONS